

# piipilean

*Soraluzeko Hamabostekaria* 47. alea 2002ko apirilaren 19a

**Zuhaitz mota autoktonoak  
egoera larrian**



**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**




**GOL, S.A. Industriak**

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>



## **Kiru Muntaiak**

**Blas Elizburu Kortabarría  
Sukalde, enpotratu  
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.**


Errekaldia, 30  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



**S.A.  
Industriak**

*Eskulanetarako tresnak*

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluez  
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: [fer@nexo.es](mailto:fer@nexo.es)



**Limpiezas  
industriales**

*Limpiezas*

**Trejo, S.L.**

Rekalde, 30 behea  
Tel.: 943 75 25 57  
Faxa: 943 75 25 56  
20.590 SORALUZE

**Lonbide  
taberna**

*Pintxoak  
Ardoak, kafeak eta likoreak*

**Errabal kalea, 9  
Tfnoa 943 75 14 07**





## Grandiosak gara, grandiosak

ENARA AGIRRE

**T**elebistako programazioa gero eta okerragoa dela denok ezagutzen dugun errealitatea da. “Gran Hermanotik” hasi eta O.T ra zaborra zaborraren gainean pilotuz joan da mendi izaugarri bat egin arte. Hala ere, artikulu hau ez da saio horiei buruzkoa, ez horixe. Telebistan estreinatutako programa berri bati buruz informatzea da nire helburua.

Seguraski zuetako gutxik ikusiko zenuten larunbat gauean Tele 5n eman zuten emakumeei eskeinitako “Grandiosas” saio berria; bejon deizuela! Ni etxean txintxotxintxo gelditu nintzen beraz ikusteko parada izan nuen. Hasiera hasieratik nabaritu nion zaborraren kiratsa, izan ere hiru aurkezleak pantailan azaldu zirenetik erraz igarri baitzitekeen programaren nondik norakoa. Izenak dioen bezala, aurkezleak ere “grandiosak” dira: Rosa Villacastín kazetaria, Belinda Washington atsegina eta, nola ez, Lolita, sarandongaren erritmoak zeharo gaztetuta.

Honekin ez ditut hiru emakume hauek kritikatu nahi, baina gisa honetako saioek benetakoa ez den emakumeon irudia ematen dute. XXI. mendean izanda gure gizartean sexuen arteko berdintasuna, hutsarte askorekin bada ere, gututz errotuta dago. Hau horrela izanda, zergatik egiten ditugu emakumeontzat zuzenduriko saioak? Gizonendakoren bat eginez gero sekulako iskanbila izango zen, baina saioa emakumeei zuzenduta dagoenean zergatik ez da inor kexatzen? Niri dagokidanez, berdintasuneko gizarte batean, eta gurea horrelakoa izatea nahiko nuke, saio horiek soberan daude. Azken finean sexuen arteko berdintasuna hori da: BERDINATASUNA.

Dena den, saio honek ere badu bere alde ona: larunbatetan 23:20an inork gutxik ikusiko du saio hau, eskerrak...

Duela gutxira arte, herrian nengoenean, nik neuk ere autoa zabalik uzten nuen askotan. Gaur egun, etxe parean bi minuturako utzi behar badut ere, ate guztiak ixten ditut, badaezpada. Horrela segituz gero, zela ibiliko gara hamar urte barru?

## Telegrapak

**A**upa kaixo. STOP. Mesedez ez eruan bi urteko umerik KZ Gunera. STOP. Oindio eukiko dau astixa internetian ibiltzen ikaste-ko. STOP. Mesedez, ez ipini xaguendako benenorik KZGunion. STOP. Mesedez ez ahalegindu Webcam ak lapurtzen KZ Gunion. STOP. Konekta Zaitetz Internet zure zain dao. STOP. Pil-pileanek ez dau ezer kobrau KZ Guniari egin dotsan publizidade danagaittik. STOP. egi-xa esateko hil honetan ez zeguan gauza asko kontatzeko eta horrekin obsesionau gara. STOP. Zeuen onerako. STOP. Aspaldixan telebista kontuak datoz kolaboraziñuetan. STOP. guk ez dittugu ikusten programa horrek eh. STOP. tira Jazinto naparra bai. STOP. Baina horixe bakarrik. STOP. Kalian esan doskue. STOP. Pil-pilean biharrian TMEO izena euki bihar leukela aldizkari honek. STOP. Eskerrikasko gure akatsak umorez hartziarren. STOP. onenak zarete eta barkatu. STOP. ezin dogu danian egon. STOP. Hurrengo alerarte irakurle maitte!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.  
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal,  
Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan,  
Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi,  
Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta  
Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Basauri  
( 943751304 tel. )

Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. Azala: Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.




SORLUZEKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA



### Non zer?

Átaixa.....	1
Zerbitzuak.....	2
Iritzia.....	3
Zer berri.....	4
Udal kontu.....	5
Erreportaia.....	6 / 7
Kirola.....	8
Sutondoaren epelean.....	9
Kultura.....	10
Kale kantalian.....	11
Kontuak kontu.....	12

Roke Akizuk bere azterketaren emaitzen berri eman digu

## Zorion agurrak



**Josu Benito Maiztegi**  
Zorionak artista!!!  
2002 - 4 - 26  
Zure antzerkixan zain  
gare.  
Aita, ama eta Iker



**Irune Odriozola**  
Zorionak!!!  
2002 - 3 - 19  
Segi holaxe, formal  
eta alaia izaten.  
Etxekuen eta Pil-  
pilekuen partez.



**Mª Karmen Amoros**  
Zorionak!!  
2002 - 3 - 11  
Muxu haundi bat eta  
zorionak bihotzez.  
Etxekuak



**Maria Etxabe**  
Zorionak!!  
2002 - 4 - 3  
Zorionak alaba eta  
arrebarik onenari.  
Etxekuen partez.



**Maite Kintanilla**  
Zorionak!!  
2002-04-15  
Ai, ai, ai! Gabian  
goizao etorri bihar  
da etxera e!  
Tia eta tion partez.

## Gutunak

Gartzelara autobusian 1

Gaurkuan be, beste behin, kirixuak dantzan aurkittu nau egunsentixak.

Batuendako asteburuko atsedendixa izango da oingo asteburua. Atsedetik bareko asteburua da, ostera, neria. Barixakua, lanetik abixadan urten eta paxakua etxera, buruan hamaika kezka eta ardura.

Oingo bisittan paketia tokatzen jako eta zeozer ahaztu ezkeru, bi aste itxoin biharko dittu hurrengua jasotzeko. Dana sartuko ete neban? Behin ta berriro listia errepasatu ostian, badaezpada berriro be begiratu dot.

Astero, goizeko ordu txikitzen senide eta lagunez betetako autobus eta kotxe iladak urtetzen dabe: Castelló, Brieva, Alcalá, Fresnes, Navalcarnero, Puerto

de Santa Maria...

Elkartasunez betetako autobusian sartu naiz aste osoko nekia lagun hartuta.

Bidaia luzia dogu aurretik eta autobuseko jarlekuak ez dau komodidade haundirik eskeintzen. Begixak itxi dittut luak hartuko naben esperantziakin, postura egokixa bilatzia ostera, ez da lan erreza.

Gidarixak konfidantzakua emoten dau, baina hala ta be, nere barruko urduritasuna lasaitzia ezinezkua da. Bidaia guztietan moduan, gaurkuan be, istripuaren bildurra nagusitu da nere pentsamenduetan.

Ez dago zertan, pentsatzen dot apur bat lasaitu nahixan, ta zergatik ez!, arriskua beti hortxe dago ta.

**Soraluzeko Etxerat**

## Agenda

### ANTZERKIA

"Ondo esan beharko". Ramon Agirre. Apirilaren 26ixan, 22:15enetan Kiroldegixan

### LURDESERA IRTEERA

**Maiatzaren 24-27** bittartian 943 75 13 70-943 75 13 90 telefonuetan.

### OHARRA

Itxaropenatik jakinarazi digutenez, Imersoko bidaietarako izena emoteko imprimakixak egoitzan bertan dare eskuragai. Hil honen 30ian amaitzen da bidalketia egiteko epia.

## hildakuak

Bicente Torres  
Jose Migel Arana  
Manuel Nuñez

## jaiotakuak

Irene Etxezarreta Mendikute  
Jon Oregi Gutierrez

## Errata

46. *Alian hildako eta jaiotakuen izenak alderantziz jarri genduzen eta jaiotako baten izena be bai. Akats larria izan zan eta hargatik, barkamena esakatu nahi dotsuegu minduta sentittu ahal izan zarien danori.*

**PIL-PILEAN**



## Electricidad LAU, C.B.

Muntaiak, Industria Instalazioak,  
bobinatuak, automatismoak, konponketak  
Olea auzoa 3,behea  
Tel 751234 20950 SORALUZE

## Instalaciones Kalebarren S.L.




GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

## Javier Alonso Zelaieta

Hortz klinika



Mediku estomatologoa  
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma  
Tfnoa 943 75 16 13



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

## ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5  
Tfnoa 943 75 18 91  
Faxa 943 75 24 58  
E - maila: etxehun@teletel.es  
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE  
Gipuzkoa

**Zer irizten dotsazu?****Apuntauko al zinake Kz gunian?  
Zergaittik?****Lupe Gomez**  
**38 urte Etxekoandria**

Bai, apuntaua nao. Ikasteko eta gainditzeko diran gauza guztiak onak pentzatzeten jataz. Oin momentuan ez daukat ideiarik be, baina ikasiko dot.

**Gustavo Laskurain**  
**57 urte Langilia**

Ni ez, heldua naiz horretarako. Ikasteko aukeria badaukat etxian ,baina oindiokan ez naiz hasi.

**Leo Zarobe**  
**10 urte Ikaslia**

Bai, gustatzen jata internetian ibiltzia. Oin tian etxian erabiltzen dot.

**Santos Elizburu**  
**50 urte Ofizinistia**

Igual bai, herrirako ona dala pentzatzeten jata. Nere adinian ez da oso interesgarria baina jende askori ondo etorriko jako.

**Ohiane Lasa**  
**11 urte Ikaslia**

Bai, asko ikasiko dotela uste dot. Piskat erabiltzen badakit, baina etxian jarri bihar dostenez gehixao ikastia nahiko neuke.

**Fermina Arriola**  
**57 urte Garbitzaila**

Bai, apuntauo nintzake. Ez dakit ezebe internetari buruz eta gustauko litzaidake ikastia, baina ez daukat astirik.

Ugaitz Catalan eta  
Enara Agirre

**SAN ANDRES**  
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

**Kontulan**  
**Aholkularitza S.L.**

**Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

## Jubilatu eta etxekoandre asko KZ Gunean

Dagoeneko 90 pertsona baino gehiagok eman dute izena Interneta erabiltzen ikasteko Baltegieta zabaldun Konekta Zaitz Gunean. Orain artean izena eman duten pertsona gehienak, etxekoandre eta jubilatuak izan dira, KZ Guneak erakartzea helburu duen jende mota hain zuzen. Tutoreak oso gustora azaldu dira jendearen erantzunarekin eta izan dituzten eskaerak kontuan hartuta, Gunearen berezko ordutegian lanean diharduen jendearendako, ordutegi malguagoak egokitzea erabaki dute; hala eskatu ezker, 14:00etatik 16:00etara eta 20:00etatik 21:00etara



ere emango dituzte eskolak. Tutoreek dei egin nahi diete Soraluzetar denei, inungo bildurrik barik Baltegieta urreratu eta KZ Gunea bertatik bertara ezagutzera animatu daittezelarik eskatuz.

## Emakumeen langabezia gizonezkoen hirukoitza

INEM-eko datuek adierazten dutenaren arabera, langabetu moduan inskribituta dauden 102 soraluzetarretik, 75 emakumezkoak dira eta 27 gizonezkoak. Aipatutako emakumeen adina 25-29 urte eta 45-49 urte artekoa da eta

gehientsuenak ez dira Erdi edo Goi Mailako Tituluen jabe. Langabetu gehienak eskulan industria alorrekoak dira, eta beste asko sekula lan munduan barneratu ez direnak.

## Hirukurutzeta Eguna



Soraluzeko Atsedan Txabola eta Osintxuko Txurrunbilo Elkarteek antolatuta, Hirukurutzeta Eguna egingo da maiatzaren 5ean. Egitaraua eguraldiaren arabera moldatuko da baina eguraldi ona bada, 11:00etan Pago Bedeinkatun egingo den mezarekin hasiko da eguna. Mezaren ostean, bertan banatuko dituzten salda eta txorixoa jan eta 14:00etan Hirukurutzetan bazkaria egingo da. Ondoren, kafea eta trikitiaz alaitutako erromeri giro ederra izango dira Hirukurutzetan.

## Pedro Jose Etxeberria isolatuta

Soraluzeko Etxerat taldeak jakinarazi duenez, Castellón preso dagoen Pedro Jose Etxeberria plaentxiarra isolamendu zelda batera eraman zuten apirilaren 12an eta bertan egongo da 22rarte. 10 Egun horietan, eguneko 23 ordu zelda barruan pasatu beharko ditu eta patiora ere bera bakarrik aterako dute egunean ordubetez. Bisita orduak igande arratsaldetara aldatu dizkiote eta senideei -ia ezinezko- egiten zaie egun horretan joatea. Isolamendura sartzeko arrazoia, "Euskal Preso Politikoen senide eta lagunek asatero astero errepidean izaten dituzten istripuak salatzea" izan omen da.

## Lapurreta gehiago enpresetan

Apirilaren 7tik 8rako gauean, lapurretak izan ziren Mendiola Industrialdeko zenbait enpresetan, tartean Eles Ganter eta Zuzamon. Lapurrek argizatze publikoa moztu eta sarrerako atak indarrez zabaldu eta gero, era guztietako materiala ohostu zuten lantegietatik. Ertzantzaren esku dago lapurreta hauek argitzeko ikerketa lanak egitearen ardura eta bide onean omen doaz.

## Kooperatibako urteko batzarra

Asteartean egin zen, Erosle Kooperatibako bazkideen urteko batzarra. Batzar honetan, Juntako partaide berriak aukeratu ziren; Juan Carlos Astiazaran, Anjel Catalan, Mariasun Txurruka eta Jose Frantzizko Urreztarazu, hain zuzen ere.

Egoitz Unamuno



### MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

## ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa  
Berogailuak  
Sukaldeak eta Bañuak

Santa Ana, 20 Behea  
Telefonoa: 943 75 12 41  
Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96



# Abenduan zabaldu liteke kiroldegia

Apirilaren 15ean Kiroldegiko Batzordeak bilera egin egin zuen Udaletxean. Bertan, Alberto Sudupe alkateak Kiroldegiko lanen martxaren berri eman zuen. 49 Miloi baino gehiagoko kostua izango duten lanen lehenengo faseko lanak amaitzear daudela aipatu zuen alkateak. Bigarren faseko lanak (Kalefakzio, klimatizazio eta iturgintza), eskeintza garestiegi bat baztertu eta gero, inori esleitu barik daude oraindik, hala ere enpresa batzuekin harremanak izan dira eta Kiroldegira egindako bisiten ostean, maiatzaren hasierarako proiektu bat egin eta hau onartuko balitz, abendurako piszina, frontoia eta makineria lanak amaitzeko konpromisua adierazi dute. Bigarren fase honetan; erakusketa gela, liburutegia eta gimnasioa ere ego-



kitiko dira. Horretarako 65 miloi inguru daude.

## Ginekologi zerbitzua handitzeko eskaerari ezetza

Orain bi hilabete inguru, Udaleko Ongizate eta Osasun Batzordeak Sorluzen Ginekologia alorrak ematen duen zerbitzua handitzeko eskaera egin zien hainbat erakunderi. Orain, Osakidetzak ezezkoa eman dio eskaera honi, dagoen eskaerari erantzuteko; 5.000 biztanleko,

eskualdeko Osasun Etxean egun osoko lan jardun bat ezartzearekin "nahikoa" dela argudiatuz. Beraz, Eibarko Osasun Etxean jasoko dute harreta, ginekologia zerbitzuaren beharrean dauden emakume soraluzetarrek.

## Sazian aparkalekuak

Hil honetan bertan hasiko dira Sazian aparkalekuak egokitzeko egin beharreko lanak. Maiatz alderako 30 aparkaleku baino gehiago egokituko dira. Gerora 200 aparkaleku inguru egitea aurriztatu du Udalak.

## Santa Anako zakarrontziak bete egingo dira

Santa Ana kalean egin behar ziren lur azpiko zakarrontziak bete egingo dira. Hau egitearen arrazoia ez da pareko horman azaldutako pitzadurena, etxeak Hodamen Egoeran izendatuak izan direla baizik.

## Udalaren Oharrak

### Motordun Ibilgailuen Zirkulazio Zerga

2.002. Urteko motordun Ibilgailuen Zirkulazioko Udal Zergari dagokion ordainagiriak maiatzaren 2tik ekainaren 28ra bitartean (biak barne) kobratuko dira.

### Pasabideen Zerga

Maiatza 2tik ekainaren 28ra bitartean, 2.002ko jardunaldiko Pasabideak izeneko Zerga kobratuko zaiela Udaletxeko lehenengo pisuan kokatutako Udal Bulegoetan.

*Ordainagiriak Banku edo Aurrezki Kutxetan helbideratu gabe dituzten guztiek, Udal Bulegoetan ordain ditzakete lanorduetan eta gorago zehaztutako epean.*

### Uren eta zaborren zerga

2.002ko martxoaren 11tik maiatzaren 11ra bitartean diren lanegun guztietan, biak barne, eta borondatezko epe gisa, 2.001eko 4. Hiruhilabeteko ur eta zaborren ordainagiriak edo erreziiboak, jendearen esku egongo dira ordainagiriak edo erreziiboak, jendearen esku egongo dira ordainketa egiteko.

GIPUZKOAKO FORU DIPUTAZIOAK ekitaldi honetarako egin duen Hiri eta Landa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren urteko Errolda jaso ondoren, jendaurrean erakusten da:

Agerian aurkitzen den lekua: Udaleko Idazkaritzan.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK egindako 2.002. ekitaldiari dagokion Udallerri honetako Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikula jaso da eta jendeari ezagutzera ematen zaio: Agerian aurkitzen den lekua: Udaleko Idazkaritzan.

**Egoitz Unamuno**



**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



**BELARZAK**

LORADENDA ETA BELARDENDA

EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 behea  
Tel.: 943 75 30 11  
Eskukoa telefonoa: 646 43 90 40  
20.590 SORALUZE





## “ Baso autoktonuak egoera larrixan dare” R. Akizu.

*Haritza, lizarra, pagua, urra, altza, gorostixa, gaztañia, tilua, keixia...uz-tailetik urtarrilera bitartean, Roke Akizu plaentxiarrak baso autoktonoen egoeraren inguruko inbentarioa bat egin du Udaleko Nekazaritza Sailaren eskariz. Rokek, Soroluzeko lurretan dauden baso autoktono guztiak katalogatu ditu, zeinen jabegotan kokaturik dauden eta zein egoeratan dauden ere aztertu du. Azterketen emaitzen inguruko balorazioaz eta aurrera begira egoera hau aldatzeko hartu daitezkeen neurriez berba egin dugu Rokerekin.*

### **Baso autoktonoak oso egoera larrixan**

Rokek azaldu digunez gaur egunean Soroluzen dagoen zuhaitz espezie autoktonoen masaren egoera, oso larria da. Arrazoiaren artean faktore asko batzen dira; zahartasuna “daren zuhaitzik gehixenak oso zaharrak dira eta ez dira berez birsortzen (Zuhaitz gazteen kasuan, “gutxi izan arren, ez dira len beste mozteten eta altuaguak egitten dira”).”, sakanaketa eta urritasuna; “basuak oso banatuta dare elkarrengandik eta partzelak oso txikixak dira”, hazien kalitatearen kaxkartzea; “beste gauza batzuekin egitten ez dan moduan, arbolekin onenak

bota eta kaxkarrenak lagatzen dira, hautespen negatibo bat bultzatuz. Honek hazixen genietan be eragina izaten dau.”, ganaduaren presentzia arduragabea “kosta egitten jako urtetzia eta gainera ganauak sartzen badira, ba akabo!”, egur produktiorako interes ekonomikorik eza “piñuak dirua emoten dau eta paguak ez dau emoten, orduan zertarako sartuko dot? (galdetzen dotsa basarritarrak bere buruari). Zuri edo beltz, egoera horretan gare”, hazteko lekuri ez; “piñua bakarrik sartzen da, basuak ez dira miezten eta hola ezin leike arbola berri-rik sortu; ez dauke lurrik eta lekuri hazteko”. Arrazoi guzti hauengatik, Rokeren ustetan “birsorketa maila oso txixkia da espezie autokotonuetako basuetan, eta hau, biodibersidadiaren eta ingurugiruaren aberastasunaren ikuspuntutik desastre bat da. Hobe da piñua eukitxia ezer ez eukitxia baino baina horrek be gestiño bat bihar dau”.

### **Mendiaren interes ekonomikoa**

Iraganera begiratuta, ekonomiak gure mendien bilakaeran duen garrantzia ulertzeko gako asko dagoela konturatu gara. 16. Mendean, burdinolek egur ikatza kontsumitzeko zuten beharra zela eta, “lege senduak zeren; arbola bat bota ezkeru bi landara berri sartu bihar

ziran, garai batzuetan bakarrik bota leixian egurra eta abar. Askoz hobeto ezagutzen zeben inguru naturala eta bazekixen zer egin bihar zan zaintzeko”. Burdinola eta itsasontzigintzako industriaren presioaren eraginez, “birlandaketa serio bultzatzen zan” eta honen inguruan zenbaitek negozio “edarrak” egin bazituen ere, “mendixa osasuntsu mantent-

### **“daren zuhaitzik gehixenak oso zaharrak dira eta ez dira berez birsortzen”**

zako ahalegina egitten zan”. Ahalegin guzti hau, interes ekonomikoa argi bategaitik egiten zen eta hotxe dago gakoetako bat. “Oindala 200 urte espezie autoktonodun basua rentabilia zan baina poliki poliki, aldatzen jua da eta urte batzuetatik hona piñua da rentabilia dan arbola bakarra”. Rokeren ustetan, baso autoktonoak mantentzeak bestelako onura mota batzuk ekarri ahal ditzake, “imaginatu gure mendixetan bertako espeziak zainduko balira ze balixo izango leuken horrek; bai gure bizi kalitate aldetik eta zer esanik ez turismuandako; bide zarrak garbittu, ibilbidiak antolatu. Mendixak



modu askotara aprobetxatu leikez eta gaur egunian egitten dana baino aprobetxamendu hobia egin leike”.

### Lurraren higaduraren arazoa

Rokek aipatu digun ondorio-rik larrietariko bat lurraren higadurarena da. “Hemen daguan aldapiakin, lurra gaixa da garrantzitsuena. Hemengo arazorik haundixena da, urak lurra eruan egitten dabela. Baserritarak lehenago oso ondo zeken zainduta gai hau. Zelai eta soruetan kañuak, errekatxueri hormak alde bixetan, mugak zainduta, erretenak garbi... lan izugarria egitten zan urren bide-razte eta ingurugiruan mantentmentu aldetik. Gaur egun, hori danori galtzen doia eta antolamentu mailan ezer egitten ez bada, mendiko lurrik aberatsenak urak eruango dittu poliki poliki. Sarritan lur sail baten piñua botatzen danian, ez da ezer kontuan hartzen, piñua ahal dan bizkorren etaratzia bakarrik. Arrastradorak eta batzuetan egitten diran garbiketak, bejeta-ziño dana kendu eta lurra bistan lagatzen dabe. Urak lurra eruatzen badau, gaineko lurra, aberatsena dana galdu egitten da eta berriro piñua edo beste zeoze sartzen danian, askoz gehixago kostatzen jako haztia”.

### Ingurugiroko Plangintza baten beharra

Rokek, Ingurugiro Plangintza batek arazo guzti hauei irtenbideak aurkitzen hasteko aukera emango lukeela uste du. Helburuak garbi ezarri eta helburu horiek lortzeko erizpide zehatzak ezartzea aurrerapauso handia litzateke Rokeren ustetan “erizpide argiak erabili bihar



Mendigaineko zuhaitzak adartsuak izaten dira.

## “ urak lurra eruatzen badau, gaineko lurra, aberatsena, galdu eitten da”

dia nun, zela eta zertarako jokatu bihar dan jakitzeko: eremu batzuk biotopo izendatu leizke, oso aberatsak baldin badira edo desagertzeko animaliren bati lagundu bihar baldin bajako. Holako plan bat egitten danian, bihar dana alde guztiekin adostasun batera heltzia. Baserritarak ezin dabe pisu dana euren

gain hartu, bizimodua aldatu egin da eta beste moduren bat be topau biharo da mendixa zaintzen laguntzeko”. Gaur egunean, Guardak omen dira mendietan egiten denaren berri jasotzen dutenak (“pista bat zabaldu bihar danian, piñudi bat bota bihar danian edo sua piztu bihar danian tramite administratibuak bete arazten dittu”) baina ez omen dute inolako aginpiderik Lurralde Antolaketa eta Ingurugiro Plangintzari dagokionean. Hori dela eta, lur jabeen eskutan uzten da erabakitzeko ahalmena eta horrek gaur egun daukagun moduko desorekak sortzen omen ditu mendietan. “Esaterako, zer pasau da mendigainian. Lurjabe pribatu batek pentzau dau piñua sartzia. Jentia dabilen bidian alde bixetan hezixak ipini dittu eta jentia hasarretu egin da eta piñuak etara eta hesixak apurtu dittu. Orduan zer? Ez dau mezezi kontu horrek erizpide argi batzuen bittartez arautu eta danok nahi dogun mendigain hori lortzeko bidiak jartzia?”.

Parke Naturaletatik kanpo ezer gutxi egiten omen da mendien ustiaketa arautzeko. Esaterako, oraindik ez omen

dago Euskal Herri osoan Lurren Antolaketa eta Ingurugiroko Plangintzarik ezarri duen Udalerriarik. Hortaz, Soraluzen ezarriko balitz Euskal Herriko lehen Udalerria litzateke era honetako plan bat ezartzen. Europa aldean eta Katalunian ostera, oso aurreratuak omen daude gai hauetan eta “poliki poliki Europatik eskakizunak agertzen eta jentia kontzientziazten juaten dan ehinian” Lurraren Antolamentua arautzeko eta Ingurugirua zaintzeko presiñua gero eta haundixagua izango omen da.

Egoitz Unamuno

 **PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Telefona 75 24 09

**ARRANO**  
*tabernia*

“Giro euskalduna eta sanua”

**ETORRI ETA GOZATU**

 **etxera**  
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

## Pelota

# Asier eta Iñakiren omenez 1. Pelota Txapelketa

Joan zen urtian moduan aurten ere heldu da herriko pilotazaleendako antolatutako txapelketa. Hemendik aurrera istripuz hil ziren eta txapelketa honen bultzatzaile izan ziren Asier eta Iñakiren omenez jokatu da. Iaz 16 bikotek hartu zuten parte eta Bizkai eta Sabinok irabazi zuten txapelketa. Txapelketaren antolatzaileak txapelketari indar handia eman nahi diote, honetarako material berria eta sari hobekak jarri dituzte. Beraingana gerturatu gara aurtengo txapelketaren inguruan galderatxo batzuk egiteko.

**Zergaitik antolatzen dozue txapelketa?**

Herrixan jentia pelotan jokatzeko zaletasuna dauka eta pelotan modu "ofizial" baten jokatzeko aukeria emoteko antolatzen dogu txapelketa.

**Asier eta Iñakiren omenez?**

Juan zan urteko antolatzaileen artian izan genduzen Asier eta Iñaki-ren alde egin geinkien gauzarik txikiena da. Hala eta guztiz, ez dogu nahi omenaldi soil baten gelditzia pelota txapelketa



**Afizionatuak izango dira lehian.**

honen inguruan mobiduko dan jentia "Euskal presoak Euskal Herrira" lempian batu nahi dogu. Hala, partehartzaille danendako lelo hori edukiko daben kamisetak etarako dira

**Ze espero dozue jentian aldetik?**

Aurten esfortzu haundixa egin da material eta sarien aldetik eta guk espero dogu jentian erantzuna ona izango dala eta jua zan urteko bikote kopurua gaintutuko dogula.

## Txapelketari buruzko informazioa

Partiduak San Andres-go pilotalekuan jokatu dira.

Izen emateko: 16 urte beteak izan behar dira eta derrigorrezkoa da federatuta ez egotea. Izena emateak 10 euro balioko du, jokatzeko kamisetak barne daudelarik.

Izen ematea banakakoa izango da eta bikoteak zozketa bidez aukeratu dira.

Sariak:

1. Txapelak eta bildotsa.
2. Bildotsa
- 3 eta 4- Txuletak eta ardoa.

Txapelketaren amaieran afaria egingo da partehartzaileen artean.

Izen emateko epea maiatzak 4-an bukatzen da. Izena emateko lekuak: Arrano, Gaztelupe, Gila eta Gaztetxea.

## 3 Txapelketa jokoan

### Antton Alberdi Deba Arroko Txapelketan txapeldunorde

Antton Alberdi Deba Arroko Txapelketan txapeldunorde gelditu da. Finala Apirilaren 7an jokatu zuen Bergarako Udal Pilotalekuan. Anttonek eta Azagirrek bikote indartsua izan zuten aurrean; Abarrategi eta Errarte Ezkoriazarrak. Bi pilotari hauek maila handikoak dira eta 22 eta 9-ko emaitzaz hartu zituzten menpean Antton eta Azagirre.

### Bergara Hiria Txapelketan hiru Soralezetar

Bergara Hiria Txapelketa afizionatu mailan oso txapelketa garrantzitsua da.

Aurtengo edizioan hiru Soralezetar izango dira lehian txapela nork jantziko. Onar Muguruzak eta Jon Arrietak bikoteak 22 eta 9 galdu du lehen partidua. Aritz Laskurainek Elgetako Ubera izango du lagun.

### Tolosako lau terdiko Binakako Txapelketa.

Tolosako lau terdiko txapelketa binaka lau terdiko barruan jokatzen den bakarra da. Txapelketa final laurdentan aurkitzen da, eta Iñaki Jauregik eta Jon Arrietak aurrera jarraitzen dute. Iñakiren bikotea Landa da, eta Jonena Aranzeta.

- **Jubenilak:**

Amaiak Bat 5 – SORA 2

- **Kadeteak:**

Eibartarrak 3 – SORA 2

## Futboleko azken emaitzak

## Futbola

### Erregionalaren garaipen garrantzitsua Zumaiakoren aurka.

Joan zen domekan jokatuako partiduan talde nagusiak garaipen oso garrantzitsua lortu zuen Zumaiakoren aurka jokatuako partiduan. Partidua gogorra izan zen bi taldeek asko zeukatelako jokoan; Soralezetarrek, zulotik irteteko beharrezkoak zituzten puntuak eta Zumaiakokoak, lehen postuetan jarraitzekoak. Sorak 2 eta 1-eko emaitzaz hiru puntuak lortu zituen eta zulotik irten dira, orain jaitsiera postuetan Bergara aurkitzen dago. Salbazioa Soraren eskuetan dago, Ezozitik Kilimon, Gazteak eta Elgoibar pasatuko dira eta partidua horietan emaitza onak lortuz Sorak denboraldia zuzendu dezake.

**Xuban Catalan**

# “Nerabeei bizitzen erakutsi behar zaie”

Joan zen ostiralean apirilaren 12an, Keixeta Gurasoen Elkarteak antolatuta, Lordi Salegi Baikara elkarteko Gizarte Laguntzaileak hitzaldi bat eskeini zuen “Harremanak gure seme alaba nerabeekin” izenburupean. Hitzaldia oso interaktiboa izan zen eta urreratu ziren gurasoak, euren esperientziak kontrastatu eta elkarrekin eritziak trukatzeko aukera izan zuten. Seme alaben eta gurasoen arteko harremanak sarri izaten dira arantzatsuak nerabezaroan, eta hitzaldian, harreman horiek leuntzeko baliogarri diren gako batzuk azaleratu ziren, jarraian, labor labor aipagarrienak azaltzen ahalegindu gara.

## Arazoen aurrean harremanari eutsi

Nerabezaroan hasten dira sortzen gurasoen eta seme alaben arteko lehen eztabaidak eta garai zailak izaten dira guraso nahiz seme alabendako ere. Nerabeak lagunekin irteteten hasten dira, ligatzen, edaten

## Gurasoek, seme alabei pertsona independenteak izateko prestatzen lagundu behar diete.

Horren aurrean eta arazoari ezikusi egiteko, sarritan jotzen da pentsatzera besteen seme alabak bakarrik direla edan eta drogatzen direnak (norberarena ere berdin ibili litekeela pentsatu barrik). Baina zer gertatzen da; zaila izaten dela norbere semea kalean ikustea (bere lagunak arduratuko direlako gurasoen presentziaz ohartarazten). Lagunak ostera, errez ikusten dira, mozkortuta edo



## Gurasoek harretaz jarraitu zituzten hizlariaren ohar guztiak.

arduragabe daudenean ere. Horregaitik izaten dira gurasoak beti gertatzen denarekin enteratzen diren azkenak. Egoera horri eta sor litekeen beste edozein arazori aurre egiteko, komunikazioa da bidea, harremanari eusten ahalegintzea (lehendik harremanik baldin bada noski).

## Pertsona autonomoak izateko prestatu

Ondo dago jarrera sendo bat izatea baina beti era atsegin eta errespetutsu baten azaltzean dago gakoa. Nerabeari berarengan konfidantza izateko bete behar dituen neurriak azaltzen joan behar da (lege gogorregirik jarri gabe) eta gauzez irteteten duenean edo lagunekin nonbaitera doanean, arduratsu jokatu dezala eskatu. Gehiegizko beldurrik izan gabe (poteatzen hasi delako ez

dago alkoholiko bihurtuko dela pentsatu beharrik). Guraso bakoitzak bere seme alabekin izan dezakeen harremanaren arabera, kontrol sentsaziora eragitea sahiestu behar da. Gurasoek ulertu behar dute, seme alabak ez direla euren esanetara bizitzeko jaio, pertsona autonomo eta independenteak izateko baino. Nerabezaroa garai gakoa da, aukera asko egiten eta esperientzia berri asko izaten den garaia eta gurasoek egin behar dutena, nerabeak informatu eta bizitzaren aurrean arduratsu jokatzen erakustea da (konziente izanaz, seme alabak independente eta askeak izateko jaio direla). Hori egin eta gero, euren erabakien eskutan egongo da zela bizi (gizartean arrisku asko dago baina behar den moduan hezita baldin badago, jakingo du gizarteko arriskuen aurrean zela jokatu).

Egoitz Unamuno



## Lakuesta

### Optika

**Ikusmen arazozen frogak eta argibideak**

**Argazkiak errebelatzen ditugu**

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 30 59

En la edición de esta publicación colabora:



## kutxa

zuri esker  
gracias a ti



Musika Eskolako bandak eman zion amaiera Udaberriko Kontzertuari.

Joan zen igandean frontoian eskeini zuten Musika Eskolak Udaberriko kontzertua. Ehun bat lagun urreratu ziren musikari gazteen saioak entzutera eta

melodia aproposalde giro goxoa sortu zuten lekua hotza izan arren. Aldarrikapen garrantzitsu bat ere gogoratu zuten Musika Eskolakoek; -Lokala noizko?

## Jubilatuen Udaberriko Kultura Astea



Itxaropenan egunero karta txapelketa izan dute aste honetan. Honek dira txapeldun gelditu diren bikoteak. Zorionak denei. **Tutean:** 1.K. Ballesteros eta I. Samper Briskan. **Trukean:** V. Mendizabal eta A. Zangitu. **Briskan:** T. Martin eta M.L. Martin.

Ostiralean danak txapeldun, luntxa izan da eta!

## Orioko SALATXO Abesbatza



Joan zen larunbatean Orioko Salatxo Abesbatzak kontzertua eskeini zuten Elizan. Ehunen bat lagun batu ziren (bestetan baino gutxixeago antolatzaileen esanetan) Elizan eta Oriotarren ahotik abesti ederrak entzun ahal izan zituzten. Saioa amaitu ostean Armen din afaldu zuten umore ederrean.

## XVII. Ipuin Lehiaketa

XVI. Ipuin Lehiaketara lanak aurkezteko epea ekainaren 8rarte egongo da zabalik eta ipuinak Udaleko Bulegoetan aurkeztu beharko dira. Gaia libre izango da. 5 Talde bereiztuko dira adinaren arabera eta idatzi beharreko orri kopurua ere proportzionala izango da; 1. Taldeak (L.H. 3-4)- 1-2 orrialde, 2. Taldeak (L.H.5-6)- 2-3 orrialde, 3.Taldeak (D.B.H. 1-2) 3-4 orrialde, 4.Taldeak (D.B.H. 3-4) 3-5 orrialde, 5. Taldeak (17urtetik gorakoak) 5-10 orrialde. Sariak 25.000, 20.000 eta 15.000 pezetatakoak izango dira.

## Antzerki saioa

Datorren apirilaren 26an, barikuan, Ramon Agirre aktore ezagunaren - Ondo esan beharko- antzezlan izango da Kiroldegiko erakusketa aretoan. Ikuskizun hau Euskara Elkartearen Topaguneak eskeintzen duen Kultur Errota zerbitzutik ekarriko du Udalak Euskararen Aholku Batzordearen proposamenaz.

## Amodio Gutunen Sari Banaketa

Aurtengo Amodio Gutunen Sari Banaketa maiatzaren 17an egingo da Kantu Afariarekin batera. Aurtengo parte hartzea txikia izan da, 5 parte-hartzaile bakarrik izan dira.

## Erakusketa liburutegian

Apirilean, 70 liburu berri baino gehiago heldu dira liburutegira Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Liburu berriak, poesia, narratiba eta saioa lantzen dituzte. Adin guztietarako liburuak daude, 2-6 urte bitarteko haurrendako liburuetatik hasi eta Lur bat Haratago bezalako liburu arrakastatsuetara heldu arte. Liburuen %80a euskaraz idatzitako liburuek osatzen dute.

Goizeko 6:30-etatik  
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!

Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



MAPFRE SORALUZE



JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA

JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b  
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Eskuko telfnoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10  
20.590 SORALUZE

# Elena Perez

"begirada baten truke...mundua"

Ezeri be bildurrik ez dotsan hogeita hamar urteko neska honek emoteko asko daukala erakutsi dosku lerro honetan. Bera dan modukua azaldu jaku, gardena, gauza guztien gainetik gardena, berak aittatu daben kolorian modukua, haxe da eta ez besterik, Pereztar Elena...

## -Zure erretratua

Ni bistaratzen naizen modokua naiz, besterik barik...begiratzen naberen begien araberakua

## -Zaletasunak

Zinia, irakurtzia eta haize zabaleko urteerak

**-Koloria, lekua, erropia, abestixa, pelikulia, zenbakixa eta animalixia**  
Itsaso gardenan urdin berdetsua, konpañia onian edozein leku, niki beltza, "Mar antiguo, el ultimo de la fila" na, "el hijo de la novia", 2xa, eta gizona

## -Txikitxako momentu polit haura.

Auzuan pandillakuak jolasian elkartuta ta nahastuta ibiltzeko biltzen ginakua

## -Bapo geratzeko modoko bazkarixa

Entsalada mixtua, rapia plantxan eta limoi eta txokolate mantekaua

## -Manixaren bat

Asko. Adibidez, ordena

**-Zeri ez zenkixoke ezetziz esango**  
Fiestuki batera joateko gonbitxiari

## -Biozu...

Asko biot nere jendia

## -Udaberrixa

Koloriak, lurrinak, ilusiñuen eraberitxia

## -Munduko gauzarik garrantzitsuena

Maittasuna, familixia, lagunak eta bizitza bera

## -Noiz, nora, zeinekin eta zertara

Udan, nere herriko "corral" era lagunekin parrilladia eittera

## -Egixa borobila da...

Ama bakarra dauala

## Bertso Begiz

*Zein da gizona animalizat hartzen daben poxpolin hau, abeslarixei larrosa emon ta egitten dotsena uau. Neu seko harrittu nau, bihar dotsat esplikau, zer dan Unamunorena: muxu bakarragaittik ezer ez, ta askorengatik dena.*

*(Iparragirre abila dela)  
Etxebarri*

## -Plazentzia Oscarra zeini

Pedri eta Marijori

## -Zeri dotsazu bildurra

Benetako bildurra ezer bez

## -Zer emongo zenduke zeren truke

Becquerrek esaten zeban moduan... begirada baten truke mundua, irribarre baten truke zerua, muxu baten truke... ez dakit zer emongo neuken muxu baten truke...

## -Ezin dozu jasan

Jendiak entzuten ez jakitzia, heldutasun eza, ulerkortasun eza, jarraitukot?...

## -Ameseta xelebren bat

Mendixan arbolen artian antxitxiketan noia, ez dakit zeinengandik eta zere ngandik noian ihesi, eta halako baten hutsera jausten naiz... kuriosua da, errepikau eitten jata...

## -Txistia

Vaticanuan eitten dotsa lagun batek beste bati:

-Zein da Gurun onduan dauan zuriduna?

## -Bitxikerixaren bat

Oin dala gutxi kontzertu baten nere gogoko abeslarixari larrosa bat emon notsan eskura... uauuuuuuu!!!


**Elena Perez**

**Gururu**



**ESOZIA**  
Erretegi  
Jatetxea

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE



**IÑAKI IÑARRA**

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze

## Atzera begira

# Gayarre zinia. Gora Pantaleon!

Gayarre zinemak Gabolatz kalearen sarreran zuen bere kokalekua eta 1927tik 1972 ra bitartean iraun zuen martxan. Izena, Erronkariko Julian Gayarre tenore eusko-nafar haundiaren omenez jarri zioten. Lehenengo zinema-emanaldiak mutuak izan ziren, berezko soinurik gabeak. Baina hala ere, pelikulek musika aproposa izaten zuten lagun, martxan jartzen zen pianola batek jotzen zuena, eta bitartean, publikoak pantailan proiektatutako irudi azpiko parrafoak irakurtzen zituen. Hau horrela, zalduneriak ziharduenean, pasodoblea edo martxa militarra jotzen zuten; gaia hunkigarria edo pasiozkoa zenean, tango bat, eta horrela bata bestearen atzetik. Era honetan, musikariek aproposena erabiltzen zen sasoi hartako habanera, runba, vals eta gainontzeko konposizioekin. Sistema hau lehenengo entzutezko filmen etorrerarekin desagertu zen.

Baina Gayarre aretoak bazuen

berezitasun bitxi bat. Sarrera aurrekaldean zuen, hau da, lehenengo eserleku iladen ondoan, eta aretoan sartzen zena, pantaila atzean lagatzen zuen. Honen badu azalpenik. Izan ere, aretoko gune altuenera, Gabolatzeko sarbideetik bakarrik heldu bait zitekeen. Gainera ez ziren emanaldi guztiak zinematografikoak izaten, inoiz antolatzen ziren eta antzerki, musika edo folklore jaialdiak ere. Pelikulen kartel batzuk herriko eskapateetan jartzen ziren, emanaldi bakoitzaren ezaugarriak ezagutu zitezkeen. Argazkietako artistei begira, orduan galdetzen genion elkarri: Zein dok "trufadoria" ? (triumfadora) Baina kabinatik filmak proiektatzen zituena, bertara atzekaldeko ortu batetik igotzen zena, Pantaleon Iturbe zen. Ekitaldia hasi baino minutu batzuk lehenago heltzen zen aretora, eta kabinara iristeko aretoa zeharkatu behar izaten zuen erdiko pasabideetik. Orduan egiten genion



oihu, behin eta berriro eta etenik barik: "Biba Pantaleon!", "Biba Pantaleon!". Hau guzti hau, igande eta jai egunetan gertatzen zen, lehenengo sesioa uneen zuzendua zegoen sasoiaren. Pertsonaia famatu eta ilustre gutxi jasoko zuen bitartean Pantaleonek adina biba eta goratze. Berarekin gogoratzea merezi du.

Etxazpi

## Eukararen ajieri, sendabelarra



Pena merezi dau!



**MEREZI DAU!**

Eguneroko jardunian gero eta leku gehiago duka erderiak. Holaxe ikusten dogu mila esamoldetan. Gaur aukeratu dogunian aidibidez, "merezi dau" esatiakin nahikua da. Pena merezi dau esatian erderaren kalkua nabarmena da. Penagarri sarritan geu ibiltzen gara holako erderakadak esanda. Ia ba lagunok, eutsi euskera onari. **MEREZI DAU ETA!!!**

## Lehiaketa

### Ortzadarra sutan

**Egilea:** Fernando Morillo  
**Bilduma:** Literatura 218  
**Orriak:** 260  
**Data:** 2002ko martxoan  
**Salneurria:** 14,50 euro




Eleberririk honetako protagonistak gogor eta tematsu ahaleginduko dira, lagunarteko solasean nahiz parrandan, bizitzaren eskola horretako ikasgaiak bereganatzen: jakin-minaren irrika, sexu-jolasen saltsak, poz neurgaitzak eta desilusiorik latzenak.

**Galdera:** Zenbat kolore dauzka ortzadarrak?

**"Ortzadarra sutan"-en BI ALE DITTUZU ZAIN**

**Aurreko lehiaketako irabazlea:** Bittori Rascon  
**Erantzuna:** Espilla baserrixa.

## Mendata taberna



**Berezitasunak:**  
**Txipiroiak, Barazki**  
**Menestra, Gixauak...**  
**Asteburuan plater konbinatuak**  
**Enkarguak etxerako**  
**( bazkariak eta afariak )**  
Kalebarren, 5  
Tfnoa 943 75 13 87

## JABIER ALBERDI

**HARATEGI**  
**ARTISAU ERARA**  
**ESPEZIALIZATUA**

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN  
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24  
Tfnoa 943 75 19 32

Oparia  
eskuratzeko  
ordua duzu.



**EGUN BATZUETAN  
BAKARRIK**

Apirilaren 27ra bitarte.

**Zure Kontuak edo Libretak  
Apirilaren 7an daukan saldoa  
2.500 €tan gehituz gero,  
berehalakoan eskuratuko duzu  
erloju-pare opari polit hau.**

**Sartutako zenbalekoa  
ez da alxikia geratuko.**

- Eskudiruzko sarrerak edota beste erakunde batzuetako txekiak onartuko dira bakarrik.
- Gehianez ere, bina opari Kontu/Libretako eta bezero bakoitzeko (pertsone fisikoak bakarrik).

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza,  
Oñati eta Sarriena zeko bulegoentzako eskaintza berezia da.

 **kutxa**

## Soraluzeko XVII. Ipuin Lehiaketa

### Gazte eta Helduendako



**Gaia:** Librea


**Luzera:** L.H. 3-4 ; 1-2 orrialde, L.H. 5-6; 2-3 orr., D.B.H. 1-2; 3-4 orr., D.B.H. 3-4; 3-5 orr., 17 urtetik gorakoak 5-10 orr.

Ipuinak aurkezteko epea: ekainaren 8a

**Tokia:** Udaleku Euskara Zerbitzua

**Informazio gehiago:** 943 75 20 43 (Mikel) edo 943 75 13 04 (Pil-pilean)

## Antzerkia



**"Ondo esan beharko"** antzezlan arrakastatsua

**Aktorea:** Ramon Agirre

**Pianoa:** Joxerra Senperena

**Noiz:** Apirilaren 16an, ostirala, 20:15etan

**Non:** Kiroldegiko Erakusketa aretoan.



**PIL-PILEAN SORALUZeko AHOLKU BATZORDEAREKIN  
BATERA SORALUZE KULTURAZ JAZTEN**



**Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik**

**2002 urteko autoa da Europan**



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuekiko laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

**ETORMOBIL**

Otaola etorbidea 22

Tel.: 943 20 09 66

EIBAR

**307**   
**PEUGEOT**